

PRENTSA-OHARRA

Genero-alborapenak AAn eta hizkuntzaren botere eraldatzailea, eztabaidagai *Generoa eta zientziaren komunikazioa 2025* jardunaldian

“Generoa eta zientziaren komunikazioa” jardunaldia Bilbora bueltatzen da maiatzaren 15ean, zientzia-komunikazioan genero-ikuspegia nola txertatu eta hobetu pentsatzeko

UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatu du ekimena, eta komunikazio arloko profesionalei eta komunikazio inklusiboan interesa duten pertsona guztiei zuzenduta dago.

Bilbon, 2025eko maiatzaren 6ean. Adimen artifizialeko (AA) algoritmoetan dauden genero-alborapenak hizkuntza gizarte-aldaketarako tresna gisa edo kazetaritza matxistako praktikak detektatzen dituen behatoki baten lana izango dira, besteak beste, *Generoa eta zientziaren komunikazioa* jardunaldiaren hirugarren edizioan mahai gainean jarriko diren gaietako batzuk. UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako ekitaldi hau genero-ikuspegia duen zientzia-komunikazioko foro nagusia bilakatu da.

Jardunaldia **maiatzaren 15ean izango da**, Bilboko (Bizkaia) Iberdrola Dorrean, eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren, Iberdrolaren eta EITBren babesa eta laguntza izango du. Programak hitzaldi magistralak, mahai-inguruak eta hitzaldi laburrak eskainiko ditu, Euskal Herriko, Espainiako eta nazioarteko dibulgazio eta komunikazio zientifikoaren arloko dozena bat profesional baino gehiagoren eskutik.

Besteak beste, parte hartuko dute Esther Paniagua kazetariak (Rey Juan Carlos Unibertsitatea), zientzian, teknologian eta zibersegurtasunean espezializatua; Clare Wilkinson (University of the West of England), zientzia-komunikazioko eta parte-hartze publiko arloko ikertzaileak; María Pilar Rodríguez komunikazio esparruko irakasle eta ikertzaileak (Deustuko Unibertsitatea) eta Marta Macho matematikari eta *Mujeres con Ciencia* blogaren editoreak (UPV/EHU).

Genero-ikuspegiarekin komunikatzea

Jardunaldiaren sarrera librea eta doakoa da, baina alde zuzenetik izena eman behar da. Ekitaldia, **adimen artifizialaren eta genero-alborapenen arteko harremana** plazaratuko duten hitzaldi magistral eta mahai-inguruekin hasiko da. Lehen zati honetan, gainera, adimen artifizial feminista baterantz aurrera egiteko proposamen batzuk landuko dira.

Atsedenaldiaren ondoren, programak 15 minutuko hitzaldi laburrekin jarraituko du. Hitzaldi horietan, genero-ikuspegidun komunikazioan oinarritutako azterlanak eta proiektu berriak aurkeztuko dira. Besteak beste, honako gai hauek jorratuko dira: **hizkuntza aldaketaren eragile gisa; emakume adituen ikusgarritasuna esparru zientifikoko erreferentzia-iturri gisa; emakumeen rola komunikazio arloan egiten diren ikerketetan edo komunikabideetan praktika matxisten adibideak** detektatu eta aztertzen dituen behatoki batek egiten duen lana.

Ekitaldia amaitzeko, komunikazio zientifikoan generoa sartzeak duen garrantzia azpimarratuko duen hitzaldia izango da, eta baita ere publiko zabalago batera iristeko (ohiko zirkuluetatik harago joateko) komunikazio anitzagoa eta irekiagoa lantzeko estrategiak planteatuko duen mahai-inguru bat.

Jardunaldian parte hartzeko

Sarrera librea eta doakoa da, lekuak bete arte, baina izena eman behar da aurretik [formulario honen bidez](#). Bertara joaterik ez duenak zuzenean jarraitu ahal izango du jardunaldia, streaming bidez, [EITBko Kosmos](#) kanalaren bidez. Programari eta hizlariari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus [eranskina](#).

Los sesgos de género en la IA y el poder transformador del lenguaje, a debate en la jornada *Género y comunicación de la ciencia 2025*

La jornada "Género y comunicación de la ciencia" regresa a Bilbao el próximo 15 de mayo para reflexionar sobre cómo incorporar y mejorar la perspectiva de género en la comunicación científica

Organizada por la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU, la iniciativa está dirigida a profesionales de la comunicación, así como a todas aquellas personas interesadas en la comunicación inclusiva y su abordaje desde distintos enfoques

Bilbao, 6 de mayo de 2025. Los sesgos de género presentes en los algoritmos de inteligencia artificial (IA), el lenguaje como herramienta del cambio social o el trabajo de un observatorio que detecta prácticas de periodismo machista son algunos de los temas que se pondrán sobre la mesa durante la tercera edición de *Género y comunicación de la ciencia*. Este evento, organizado por la [Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU](#), se ha consolidado como el principal foro sobre comunicación de la ciencia con perspectiva de género.

La jornada, que tendrá lugar el **próximo jueves 15 de mayo** en la Torre Iberdrola de Bilbao (Bizkaia) cuenta el apoyo del [Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco](#), [Iberdrola](#) y [EITB](#). El programa incluye conferencias magistrales, mesas redondas y conferencias breves a cargo de más de una docena de profesionales del ámbito de la divulgación y la comunicación científica a nivel vasco, estatal e internacional.

Participarán, entre otras, la periodista **Esther Paniagua** (Universidad Rey Juan Carlos), especializada en ciencia, tecnología y ciberseguridad; **Clare Wilkinson** (University of the West of England), investigadora en comunicación científica y participación pública; la profesora e investigadora en comunicación **María Pilar Rodríguez** (Universidad de Deusto) o **Marta Macho** (UPV/EHU), matemática y editora del blog *Mujeres con ciencia*.

Comunicar con perspectiva de género

La actividad, de acceso libre y gratuito previa inscripción, comenzará con una serie de conferencias magistrales y una mesa redonda, centradas en la **relación entre la IA y los sesgos de género**. Durante esta primera parte, se abordarán además una serie de propuestas para avanzar hacia una **inteligencia artificial feminista**.

Tras el descanso, el programa continuará con varias conferencias breves, de 15 minutos de duración, en las que se darán a conocer estudios y proyectos recientes centrados en la comunicación con perspectiva de género. Se abordarán cuestiones como el **lenguaje como motor de cambio**, la visibilidad de **expertas como fuentes de referencia** en el ámbito científico, los **roles femeninos en la investigación** en comunicación o la actividad que realiza un observatorio que detecta y analiza ejemplos de **prácticas machistas en los medios**.

El evento culminará con una conferencia en la que se pondrá en valor la importancia de la **inclusión de género** en la comunicación científica y una mesa redonda que planteará **estrategias para ampliar públicos** y construir una comunicación más diversa y abierta, que trascienda los círculos habituales.

Acceso a las conferencias

La entrada al evento es **libre y gratuita hasta completar aforo**, pero es necesario inscribirse a través de este [enlace](#). Quien no pueda acudir de manera presencial, podrá seguir la jornada en directo vía *streaming* a través del canal [Kosmos de EITB](#). Para más información sobre el programa y las conferenciantes, consulta el [anexo](#).